



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 15a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestatzen ari den Osasun Lege berria zenbait puntu sar ditzan, osasun-sistemetako gobernu egokiaren eta kudeaketa publiko onaren izendatzaile komuna diren aldetik. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko duena. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen zamaren eta soiltze administratiboaren urteko zerrenda bat taxutu eta prestatzera. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketara plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten pobrezia energetikoaren arazoari konponbideak aurkitze aldera. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Geoalcali, S.L.ren Mina Muga proiektuak bete beharreko prozedura administratibo eta urratsei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñean iragan martxoaren 3an egindako “Administrazioa eta herritartasuna” jardunaldiaren helburuak bete ote diren jakitekoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (8. or.).

- Galdera, kulturaren eta artearen arloko entitateei 2016an diru-laguntzak emateko deialdi publikoa argitaratzeko atzerapenari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (9. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zergatik 2016-2017 ikasturtean ez zaien 3 urteko haurrentzako lerro-kopuru bera ematen Ingelesez Ikasteko Programa eta *British* daukaten ikastetxe publikoei. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, IdisNAren kreditazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Iruñeko Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuan bizi diren pertsonen laguntza-baliabideak emate aldera har daitezkeen neurriei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (11. or.).
- Galdera, lehenbiziko instalazioarako laguntzen deialditik kanpo gelditu diren nekazari gazteei Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emanen dien konponbideari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuaren ustez Nafarroako Gobernurako programa-akordioa lege-esparru ote den. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa IdisNA-n sartzeari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Tracasaren eta TCA Cartografía y Geomática S.A. enpresaren arteko kontratuari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, iaz urte amaieran bertan behera utzitako programen kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzeari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-elkarteekin dauzkan hitzarmen izendunei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektua aurkeztu aurreko toki entitateekiko parte-hartze eta kontsulta prozesuari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, urtarrilean PFEZaren bidezko diru-bilketa igo izanari buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Foru Komunitatean egoera osasungaitzean bizi diren herritarren eskubideak defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Osasunari buruzko foru lege berri bat taxutzeari buruz daukan aurreikuspenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (18. or.).
- Galdera, NUPEk IdisNAn parte hartzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eledunak martxoaren 9ko prentsaurrekoan egindako adierazpenei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, hautatutako ikastetxeetatik kanpo gelditu diren ikasleak D ereduak balira Hezkuntza Departamentuak izanen zukeen jarrerari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, enpresa-inbertsiorako eta I+G-rako laguntzen deialdiei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko bitarteko izendapenei buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (22. or.).
- Galdera, martxoko egun haueko uraldien kudeaketari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, egungo Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa hizkuntza ereduaren arabera banatzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (23. or.).
- Galdera, Sakanako Mankomunitateak sustaturik 12 urtetik 16 urtera bitarteko ia 2.000 haurri zuzendutako inkesta soziolinguistikoiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (24. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestatzen ari den Osasun Lege berrian zenbait puntu sar ditzan, osasun-sistemetako gobernu egokiaren eta kudeaketa publiko onaren izendatzaile komuna diren aldetik.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestatzen ari den Osasun Lege berrian zenbait puntu sar ditzan, osasun-sistemetako gobernu egokiaren eta kudeaketa publiko onaren izendatzaile komuna diren aldetik."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestatzen ari den Osasun Lege berrian, eta ondorengo araudiaren garapenean, ondoko puntuak sar ditzan, osasun zentro eta erakundeei dagokienez, gure inguruneko osasun-sistemetako gobernu egokiaren eta kudeaketa publiko onaren izendatzaile komuna diren aldetik:

1. Kide anitzeko organoak (gobernu batzordeak) O-NOZeko zentro eta erakunde guztietan. Kudeaketa-autonomia handiagoa izate aldera, kontumatea eta gardentasuna bermatze aldera, eta zerbitzuen efizientzia eta kalitatea lortzen laguntze aldera, O-NOZen ospitale, oinarrizko osasun laguntzako zentro eta bestelako erakunde guztietan egonen dira gobernu batzordeak. O-NOZen menpekoak zeinak, kide anitzeko organoak izanen baitira, eta zuzendaritzak edo/eta gerentziak haien aitzinean erantzunen dute. Kide anitzeko organo horiek ziurtaturik eduki beharko dute osasun arloko profesionalen eta herritarren parte-hartzea.

2. Zuzendari-kudeatzaile eginkizunaren profesionalizazioa. Nafarroako osasungintzan zuzendaritza-eginkizuna legitimatze aldera, eginkizun horri alderdikeriazko konnotazioak kenduz eta egonkorragoa eta eraginkorragoa eginez, hautapen-prozedura arautuen bidez eginen dira

kudeatzaileen eta zuzendaritza karguen izendapenak, deialdi publikoen bidez, lehia bidez eta hautapen-prozesua gardentasunez ebatziz.

3. Aholkularitzako eta parte-hartze profesionalen egiturak indartzea.

Erabakiak hartzean zorrotasun zientifiko eta profesionala hobeki bermatze aldera, osasun arloko profesionalak beren zentroekin inplikatzeko errazte aldera, erabakiak hartzeko prozesua gardentagoa, parte-hartzaileagoa eta demokratikagoa egite aldera eta haren kalitatea hobetze aldera, O-NOZeko zentro guztiek edukiko dituzte batzorde tekniko-asistentzialak eta aholku emateko eta parte-hartze profesionalen batzorde klinikoak, osasun arloko politikak taxutzeko eta erabakiak hartzeko.

4. Gobernu onerako eta kudeaketa onerako tresnak. Erregelamenduak zenbait xedapen jaso beharko ditu, zentroak behartuko dituen muntako informazioa Interneten argitaratzen jarraitzea eta argitaratze hori hobetzera, gardentasunez jardutera eta kontuak ematera, jardunbide egokien sistema normalizatuz hornitzera eta arau nahiz prozedura operatibo estandarizatuak eguneraturik biltzera, kalitate maila handia lortzen lagunduko dutenak. Orobat jasoko ditu jarrera-kodeei buruzko xedapenak, zuzendaritzako kideen eta gobernu batzordeko nahiz batzorde tekniko-asistentzialen kideen arteko interes-gatazkak arautzeko xedapenak, eta batzorde klinikoak eta balizko iruzur eta ustelkeria kasuen prebentzioa eta detekzioa. Gardentasunaren arloko betebeharrak hobetzea eta egikaritzea estandarizatuaren adierazle-sistema bat taxutu dadin exijitzea, O-NOZeko laguntza-erakunde mota bakoitzari egokitua."

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko duena.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege bat taxutu dezan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatuko dituen eta LGTBI-fobia errotik desagerraraziko duena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Familia, sexu eta genero bestelakotasunarekiko errespetua susta dezan, tolerantzia eta bazterkeria eza bermatze aldera, edozein pertsona eta/edo familiak bere bizitza berdintasunean, askatasunean eta naturaltasunean garatzeko aukera izan dezan.

2. Behar den araudiaren garapena susta dezan, foru komunitatearen eskumenen espa-

rruan, lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatzeko eta LGTBI-fobia desagerrarazteko. Zehapen araubide egokia eta hura aldizka ebaluatzea ahalbidetuko duen arau-esparru bat, ebaluatu ahal izateko gizartean ezinbestean gertatu behar den eraldaketa, Nafarroan bestelakotasun afektibo-sexuala askatasun osoz biziko dela bermatzeko.

3. LGTBI elkarten Nafarroako Kontseiluaren sorrera susta dezan.

4. Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 12/2009 Foru Legearen garapena jarrai dezan.

5. LGTBI ikusgaitasuna susta dezan, elkartekin batera egiteko ekintzen bidez; bereziki maiatzaren 17an, ‘LGTBI diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Eguna’ baita, eta ekainaren 28an, “LGTBI harrotasunaren eguna” baita.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen zamaren eta soiltze administratiboaren urteko zerrenda bat taxutu eta prestatzera.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko martxoaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen zamaren eta soiltze administratiboaren urteko zerrenda bat taxutu eta prestatzera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean diseinatu eta prestatu dezan Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen administraziozamen eta -soiltzeen urteko zerrenda bat. Zerrenda horrek jasoko ditu ekintzaileek jasan behar dituzten eta Nafarroan eskumenak dituen administrazio-zama guztiak, edozein administraziotan sorturikoak”.

Iruñean, 2016ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko martxoaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko”. Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan bat idatz dezan, eta ondoren urgentziaz bete dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboaren sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko. Planak honako hau jasoko du:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu informatikoaren beharrezko azpiegiturak berritzea eta modernizatzea, hardwarea, softwarea, birtualizazioa eta monitorizazioa barne.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sareko zentroyen arteko komunikazioa aztertzea eta hobetzea, eta Nafarroako Foru Komunitateko farmazia-bulegoen sarekoen arteko ere, horiei guztiei banda zabala jarriz, eta komunikazioa hobetzeko behar diren elektronika edo segurtasun arloko jarduketak egitea.

– Oinarrizko osasun laguntzan eta laguntza espezializatuan, historia klinikorako, errezeta elektronikorako eta bestelakoetarako erabilitako aplikazioak eguneratzea, merkatuak eskaintzen dituen aukera berrietara egokituz horiek denak, prestazio hobeekin, eraginkorragoekin eta ekonomikoagoekin, etorkizuneko laguntza medikoko moduetara bideratuta; esaterako, telemedikuntzara.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoan egun dauden zerbitzu informatikoak erabilia, departamentu eskudunean eta osasun zentroetan beharrezkotzat jotzen direnak sortuta, edo, azken batez, egun dauden arlo teknologikoko sozietate publikoak erabilia.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2016ko martxoaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Administrazio publikoan jarduketa programa bat taxutu dezan, seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeria kasuei aurre egiteko eta horiei erantzun egokia emateko, besteak beste ondoko neurriak jasoko dituenak: jarduketa protokolo bat, profesionalentzako prestakuntza, eta erasandako pertsonentzako informazioa, bitartekaritza, laguntza eta aholku-ematea.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten pobrezia energetikoaren arazoari konponbideak aurkitze aldera.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2016ko otsailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten pobrezia energetikoaren arazoari konponbideak aurkitze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"I. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Pobrezia energetikoaren aurkako talka-plan bat presta dezan, helburu nagusi izanen duena herritarrei bermatzea beren etxebizitzetan oinarrituko hornidurak jasotzeko eskubidea.

Hartara, Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, energia-konpainiekiko akordioak ezarriko ditu, ekidite aldera hornidura-etenik izatea hilerik hotzenetan baliabide gutxiko eta ahuleziarik handieneko etxeetan.

2. Pobrezia energetikoko egoeran dauden pertsonen etxebizitzaren zaharberritze eta hobekuntza energetikorako plan bat abian jar dezan.

II. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. "Kontsumitzaile ahul" kontzeptua definitu dezan, Europako zuzentarauetan jasotzen den moduan.

2. Pobrezia energetikoaren aurkako planak ezar ditzan, elektrizitatearen (2012/72/EE) eta gasaren (2009/73/EE) barne merkatuari buruzko zuzentarauetan proposatzen den moduan.

3. Efizientzia energetikoari buruzko arauak abian jar ditzan, lehentasuna emanez pobrezia energetikoak ukitutako etxeei.

4. Bonu sozialaren definizio berri bat ezar dezan, kontuan hartuko dituen etxebizitzaren baldintzak eta familiaren diru-sarreraren maila, eta gas naturalerako eta butanorako bonu sozial bat ezar dezan."

Iruñean, 2016ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Geoalcali, S.L.ren Mina Muga proiektuak bete beharreko prozedura administratibo eta urratsei buruzkoa.**DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Geoalcali, S.L.ren Mina Muga proiektuak bete beharreko prozedura administratibo eta urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Geoalcali S.L. enpresak "Mina Muga" izeneko Ustiapen Proiektua gauzatzeko kontzesioak eskatu ditu. Baimenak emateko eskumena Nafarroako Foru Erkidegoari, Aragoiko Autonomia Erkidegoari eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari dagokie eta, hori dela eta, Enkomienda Hitzarmen

bat sinatu da tramite guztiak kudeatzeko, tramitazio osoa Ministerioaren esku utzita. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena MAGRAMari dagokio.

Proiektu hau gauzatzeak prozedura jakin batzuk ezinbestean osatzea eskatzen du: Ingurumen-inpaktuaren Adierazpenaz gainera, lurraldearen antolamenduari dagozkion egokitzapenak (errepideetan nahiz lur industrialetan egin beharreko doikuntzak, bizitegi-lurzoruaren inguruko aurreikuspenak...), jarduera baimenak, obra baimenak, meategien inguruko araudiak agindutakoak eta abar.

Proiektuaren balizko gauzapenerako osatu behar diren urrats horiek guztiak zehaztu egin beharko dira, urrats horiek epe jakin batzuk ere izanen dituzte –proiektuari egin beharko litzatezkiekeen balizko aldaketan arabera, azalekoak nahiz funtsezkoak, egokitu beharko liratekeenak–, eta horiek denak betetzeak ere denbora beharko du.

Zein dira, zehazki, Geoalcali S.L.ren "Mina Muga" proiektuak bete beharko litzatekeen urrats eta prozedura administratiboak eta urrats horien ordena? Urrats eta prozedura horiek egoki betetzeak zenbat denbora beharko luke eta, kasurik onenean, noizko aurreikus liteke proiektua martxan jar litekeela?

Iruñean, 2016ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñean iragan martxoaren 3an egindako “Administrazioa eta herritartasuna” jardunaldiaren helburuak bete ote diren jakitekoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñean iragan martxoaren 3an egindako “Administrazioa eta herritartasuna” jardunaldiaren helburuak bete ote diren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Iragan martxoaren 3an, ostegunez, ‘Administrazioa eta herritartasuna’ izeneko jardunaldia egin zen goizez Iruñean. Nafarroako Gobernuak emandako prentsa-oharraren arabera, ‘ehun pertsona inguruk parte hartu dute: Nafarroako Gobernuko zuzendariek, toki entitateek, sindikatuek, unibertsitateek, alderdi politikoek eta, oro har, herritarrek’.

Jardunaldiaren helburua izan zen, iturri horren beraren arabera, ‘administrazioek XXI. mendean beren funtzionamendua eta gizartearekiko harremana hobetzeko aurre egin beharreko erronka batzuei buruz hausnartzeko gune bat sortzea’. Halatan, aukera hori baliatu zen jardunaldira bertaratu zirenek ezagut zezaten Foru Gobernuak zer proiektu eta zerbitzu bultzatu nahi dituen legegintzaldi honetan gobernu irekiaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloetan.

Galderaren testua

Gobernuaren ustez, bete al dira Nafarroako Gobernuak iragan martxoaren 3an Iruñean egin zuen ‘Administrazioa eta herritartasuna’ izeneko jardunaldiaren helburuak?

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Ana San Martín Aniz andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Abenduaren 2an, Erakundeekiko Harremanetarako Batzordeak mozio bat onetsi zuen aho batez,

gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutzera premiatzen zuena.

Zer neurri hartu dira hiru hilabeteotan gizonen eta emakumeen soldaten arteko arraila murrizteko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

Galdera, kulturaren eta artearen arloko entitateei 2016an diru-laguntzak emateko deialdi publikoa argitaratzeko atzerapenari buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, kulturaren eta artearen arloko entitateei 2016an diru-laguntzak emateko deialdi publikoa argitaratzeko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeri zor zaio kulturaren eta artearen arloko entitateei 2016an diru-laguntzak emateko deialdia argitaratzeko atzerapena?

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Galdera, jakitekoa ea zergatik 2016-2017 ikasturtean ez zaien 3 urteko haurrentzako lerro-kopuru bera ematen Ingelesezt Ikasteko Programa eta *British* daukaten ikastetxe publikoei.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zergatik 2016-2017 ikasturtean ez zaien 3 urteko haurrentzako lerro-kopuru bera ematen Ingelesezt Ikasteko Programa eta *British* daukaten ikastetxe publikoei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zaizkie hiru urteko haurrentzako lerro berak ematen 2016-2017 ikasturterako, Ingelesezt Ikasteko Programa eta *British* daukaten ikastetxe publikoei?

Corellan, 2016ko martxoaren 7an

Galdera, IdisNAren kreditazioari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, IdisNAren kreditazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldearen eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak martxoaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lehenago Nafarroako Gobernua lanean aritu zen, beste entitate batzuekin batera, IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntza Institutuaren kreditazioa lortzeko. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko, Navarrabiomed-eko, Nafarroako Unibertsitatea Klinikako, Nafarroako Unibertsitateko eta CIMAKo ikertzaile askok lan handia egin ostean, kreditazio horretarako beharrezkoa zen dokumentazio guztia prestatu zen eta Carlos III.a Institutuari aurkeztu zitzaion, orduko Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andrea-
ren eskabide formalarekin batera. Auditoria eta kreditazioa 2015aren amaiera alderako zegoen aurreikusia. Egungo Nafarroako Gobernuak, bestalde, 2015eko abenduaren 16ko prentsa-ohar batean, adierazi zuen kreditazioaren azken fasean zegoela IdiSNA.

– Noizko aurreikusten da IdiSNAren kreditazioa?

– Osasun Departamentuak zer urrats egin ditu kreditazio prozesu hori bukatzeko?

– Zergatik ez da lortu hasiera batean aurreikusitako datetan?

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Iruñeko Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuan bizi diren pertsonen laguntza-baliabideak emate aldera har daitezkeen neurriei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Iruñeko Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuan bizi diren pertsonen laguntza-

baliabideak emate aldera har daitezkeen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako Departamentuak zer neurri har ditzake Iruñeko Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuan bizitzen ari diren pertsonen laguntza-baliabideak emateko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, lehenbiziko instalazioarako laguntzen deialditik kanpo gelditu diren nekazari gazteei Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emanen dien konponbideari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, lehenbiziko instalazioarako laguntzen deialditik kanpo gelditu diren nekazari gazteei Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emanen dien konponbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Mari Carmen Segura Moreno andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Lehenbiziko instalaziora bideraturik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak egindako deialditik kanpo gelditu diren 90 nekazari gazteen egoera kezka-garria ikusita,

Departamentuak zer konponbide emanen du gazte horiek nekazaritza-sektorean sartu ahal izan daitezen?

Iruñean, 2016ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuaren ustez Nafarroako Gobernurako programa-akordioa lege-esparru ote den.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuaren ustez Nafarroako Gobernurako programa-akordioa lege-esparru ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuaren ustez, Nafarroako Gobernurako programa-akordioa lege-esparru bat al da?

Corellan, 2016ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa IdisNA-n sartzeari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa IdisNA-n sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutua diziplinarteko eta nazioz gaindiko ikerkuntza biomedikoko gune gisa eratu zen, osasun-zerbitzuetako ikerkuntza oinarritzko, kliniko eta epidemiologikora bideratuta, honako talde hauek elkartu zirenean: Nafarroako Unibertsitate Klinika, Nafarroako Ospitalegunea, Nafarroako Unibertsitatea, CIMA-Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Zentroa, Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioa, Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzko Laguntza.

Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi izan du bere nahia dela NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoa institutu horretan sartzea. Hori dela eta, honako hau jakin nahi dugu:

Zertan dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren elkarriketak, NUP IdiSNA-n sartzeari dagokionez?

Iruñean, 2016ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Tracasaren eta TCA Cartografía y Geomática S.A. enpresaren arteko kontratuari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, Tracasaren eta TCA Cartografía y Geomática S.A. enpresaren arteko kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2014ko abuztuaren 20an jakitera eman zen Tracasak TCA Cartografía y Geomática SA enpresarekin hamar egun lehenago egindako kontratua,

4.900.000 eurokoa (BEZik gabe), katastro-zerbitzuak egiten laguntzeko.

TCA Cartografía y Geomática SA enpresak Alcalá de Guadaíran (Sevilla) dauzka bere egoitza nagusia eta egoitza soziala. Tracasak % 50eko partaidetza dauka bertan.

Tracasak TCA Cartografía y Geomática SA enpresari 2014ko abuztuaren 20an esleitutako kontratua, 4.900.000 eurokoa (BEZik gabe), mantentzen al du egun?

Ezezkoan, noiz arte mantendu zen kontratua, eta zeintzuk izan ziren kontratua hutsaltzeko arrazoiak?

Kontratua oraindik ere mantentzen baldin bada –edo, hutsalduta baldin badago, hutsalketaren egunera arte–, zer lan eta zer entitate publiko edo pribatuk kontratatu dute Tracasa, horrek TCA Cartografía y Geomática SA enpresaren zerbitzuak kontrata ditzan? Tracasari zer etekin ekarri dio 4.900.000 euroko kontratua (BEZik gabe) TCA Cartografía y Geomática SA enpresari esleitzeak?

Iruñean, 2016ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, iaz urte amaieran bertan behera utzitako programen kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzeari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarrro jaunak aurkeztutako galdera, iaz urte amaieran bertan behera utzitako programen kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarrro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Iragan martxoaren 7an, Estatuko egunkari batek (La Razónek) albiste bat argitaratu zuen, UGTren Nafarroako idazkari nagusi Lecumberri jaunari egindako elkarrizketa batekin batera, zeinaren arabera Foru Gobernuak erabaki baitu "iaz urte amaieran bertan behera utzitako zenbait programaren kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzea".

Hori hala baldin bada, zer programari buruz ari gara, zehatz-mehatz? Zer kontusail daude esleiturik programa horiek finantzatzeko? Zer prozedura baliatu da langabetuei laguntzeko eta laneko arrisuen prebentziorako programak prestatzeko kontusailak UGT, CEN eta CCOO erakunde pribatuei esleitzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarrro

Galdera, Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-elkarteekin dauzkan hitzarmen izendunei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-elkarteekin dauzkan hitzarmen izendunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteburuan, UGTren Nafarroako idazkari nagusiak, Javier Lecumberri, iragarri zuen bere sindikatuak 25-30 pertsona inguru kontratatuko dituela, esanez Gobernuak erabaki duela UGT eta CCOO sindikatuei eta CEN patronalari itzultzea iaz arte zeuzkaten zenbait programaren kudeaketa, hitzarmen izendunen bidez. Alabaina, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Laparra jaunak

gezurtatu egin zuen informazio hori martxoaren 9an, esanez Nafarroako Gobernuak eutsi egiten diola bere erabakiari; alegia, erdira murriztea sindikatuekiko eta enpresa-erakundeekiko hitzarmen izendunetara bideratutako diru-kopurua.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zertan dira Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin dituen hitzarmen izendunak? Nafarroako Gobernuak zer urrats egiten ditu hurrengo urteotan gai honi dagokionez?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektua aurkeztu aurreko toki entitateekiko parte-hartze eta kontsulta prozesuari buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektua aurkeztu aurreko toki entitateekiko parte-hartze eta kontsulta prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Beaumont andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Polizie buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetan lehenengoak ezartzen duenez, foru lege horrek indarra hartu eta bi urteko epean Nafarroako Gobernuak, alde aurretik toki entitateei denbora emanda kontsultetarako eta parte hartzeko, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektu bat ekarriko du Nafarroako Parlamentura.

Kontuan hartuta xedapen hori 2015eko apirilaren 16an sartu zela indarrean, urtebete baino pixka bat gehiago bakarrik falta da foru lege proiektu hori Parlamentuan aurkezteko gehieneko epea amaitzeko.

Hori dela eta,

Zure departamentua zer urrats egiten ari da edo egiteko asmotan dabil, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektua aurkeztu aitzin toki entitateekiko parte-hartze eta kontsulta prozesua garatzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, urtarrilean PFEZaren bidezko diru-bilketa igo izanari buruzkoa.

MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, urtarrilean PFEZaren bidezko diru-bilketa igo izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak 2016ko urtarrileko diru-bilketari buruz argitaratu dituen datuen arabera, PFEZaren bidezko diru-sarrerak hiru miloi eta erdi baino gehiago igo dira iazko hil bereko diru-bilketarekin alderatuta.

Informazio hori ikusita,

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du diru-bilketaren igoera horri buruz? Urtarrileko datuetan oinarrituta, zer igoera aurreikus daiteke urte osorako?

Nafarroako Gobernuaren ustez, aurreikusitako diru-bilketaren igoerarekin modurik egonen al da funtzionarioen aparteko ordainsaria, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen birpublikotzea eta Toki Inbertsioen Plana ordaintzeko, 2016rako aurrekontuetarako akordioetan aurreikusi den bezala?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

Galdera, Foru Komunitatean egoera osasungaitzean bizi diren herritarren eskubideak defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Foru Komunitatean egoera osasungaitzean bizi diren herritarren eskubideak defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak zer neurri ari da hartzen Foru Komunitatean egoera osasungaitzean bizi diren herritarren eskubideak defendatze aldera?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Nafarroako Gobernuak Osasunari buruzko foru lege berri bat taxutzeari buruz daukan aurreikuspenari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Osasunari buruzko foru lege berri bat taxutzeari buruz daukan aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko foru parlamentari Marisa De Simón Caballero

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den martxoaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Osasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutu dezan.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dauka Osasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutzeari dagokionez? Zer egutegi eta prozedura baliatuko ditu horretarako? Nafarroako Gobernua zer printzipio eta eduki jorratzen ari da Osasunari buruzko Foru Lege berrian txertatzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, NUPek IdisNAn parte hartzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, NUPek IdisNAn parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Programa-akordioak, Osasungintzari buruzko atalean, hitzez hitz jasotzen du konpromiso hau: "Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren zuzendaritza, kudeaketa eta kontrola publikoak izatearen alde egitea, argi egin ere, eta Institutuan parte hartzen duten aldeei berariaz jakinaraztea"

Osasuneko kontseilariak berak ere horixe adierazi izan du behin baino gehiagotan; azkena, Legebiltzarrean abenduaren 17an galdera bati emandako erantzunean. Orduan adierazi zuenez, hasiak ziren aldean arteko elkarrizketak, lortze aldera NUP berehala sartzea IDISNAn; eta, azpimarratu zuenez, elkarrizketak "bide onetik" zihoa-zen.

Adierazpen horiek egin eta hiru hilabete igarota, orain dela egun batzuk jakin dugu izendatuak izan direla Osasun Departamentuak IDISNaren patronatuan izanen dituen ordezkariak. Mantendu egiten dira, patronatu horretan, Nafarroako Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Klinikaren ordezkariak. Orain arte, beraz, ez da NUPen ordezkariarik sartu, eta halakorik ere ez da iragarri.

Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Zertan da NUPek IdisNAn parte hartzea? Nafarroako Gobernuak nola bermatuko du Institutuaren zuzendaritza, kudeaketa eta kontrola publikoak izatea?

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eledunak martxoaren 9ko prentsaurrekoan egindako adierazpenei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren eledunak martxoaren 9ko prentsaurrekoan egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, martxoaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Foru Gobernuaren eledun Ana Ollok martxoaren 9an egindako prentsaurreko batean adierazi zuen oposizioa "lokatz politikoan lohitzten" ari dela hezkuntza arloa, "zeina gai oso serioa baita, oposizioa ematen ari zaion tratamendua baino askoz serioagoa". Erantzun hori eman zuen, galde-tu zitzaionean ea zer irizten zien zenbait familiak egindako kritikei, uste baitute Ingeleseztatik ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan lerro-murrizketa bat gertatzen ari dela.

Nafarroako Gobernuaren eleduna zeri buruz ari da zehatz-mehatz, esaten duenean oposizioa "hezkuntza arloa lokatz politikoan lohitzten" ari dela?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, hautatutako ikastetxeetatik kanpo gelditu diren ikasleak D ereduak balira Hezkuntza Departamentuak izanen zukeen jarrerari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, hautatutako ikastetxeetatik kanpo gelditu diren ikasleak D ereduak balira Hezkuntza Departamentuak izanen zukeen jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer jarrera izanen zukeen baldin eta gurasoek hautatutako ikastetxeetatik kanpo gelditutako ikasleak D ereduak izan balira?

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, enpresa-inbertsiorako eta I+G-rako laguntzen deialdiei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enpresa-inbertsiorako eta I+G-rako laguntzen deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zeri zor zaio enpresa-inbertsiorako eta I+G-rako laguntzen deialdien onespenera atzerapena?

– Haiek noiz onesteko aurreikuspena dago? Zein da haietako bakoitzaren diru-zenbatekoa?

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko bitarteko izendapenei buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko bitarteko izendapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko martxoaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du orain arte egin dituen bitarteko izendapen guztiak berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioetara egokitzeko, medikuntzako zerbitzuberu baten bitarteko izendapena deuseztatu duen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiak exijitzen duen moduan?

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, martxoko egun hauetako uraldien kudeaketari buruzkoa.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, martxoko egun hauetako uraldien kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, heldu den martxoaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Azken eurite eta elurteek kezka eragin dute, berriro ere, Erriberako herrietan eta nekazarien artean.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak zer balorazio egiten du martxoko egun hauetako uraldien kudeaketa dela eta?

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, egungo Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa hizkuntza ereduaren arabera banatzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatun handiko galdera, egungo Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa hizkuntza ereduaren arabera banatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotatun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko martxoaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sarriguren HLHIPa, zeina orain dela gutxi sortu den eta hazten ari den hirigintza-eremu batean baitago, eredu izan da bere antolamendua-rengatik eta Sarrigurenen bizi diren eta ikasketak hiru hizkuntza ereduatan egiten dituzten ikasle guztientzako bere hezkuntza-proiektu komunarengatik. Berdinen eta ezberdinen arteko bizikidetasunaren erreferentzia bat izan da.

Iragan martxoaren 11n, Nafarroako Gobernuak honako albiste hau argitaratu zuen: "Sarrigurengo ikastetxea bikoiztu egingen da heldu den ikasturtean, halako moduan non hizkuntza ereduaren arabera bi ikastetxe egonen baitira, gune amankomunak partekatuko dituztenak".

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan ditu egungo Sarriguren HLHIPa hizkuntza ereduaren arabera bi ikastetxetan banatzeko? Banaketa egiteko beste irizpiderik aztertu al du? Betiere, ikasleek hezkuntza-esperientziak (jolas-orduak, jantokia, sarrerak eta irteerak edo bestelako jarduerak) partekatzea bermatuko al da?

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Sakanako Mankomunitateak sustaturik 12 urtetik 16 urtera bitarteko ia 2.000 haurri zuzendutako inkesta soziolinguistikoari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Sakanako Mankomunitateak sustaturik 12 urtetik 16 urtera bitarteko ia 2.000 haurri zuzendutako inkesta

soziolinguistikoari buruzkoa zen, eta 2015eko abenduaren 15eko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea.

HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Kontuen Ganberako lehendakaria izateko hautagaiak aurkezteko epea **2016ko martxoaren 18ko 12:00ak** arte luzatzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarten eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza